



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Francisco Michelena Celayeta.
Jose Maria Michelena Erasun.
Ezekiel Loiarte Santesteban.
Imanol Baleztena Elizalde.
Leire Bazterrika Loiarte.

2018ko martxoaren 5ean, 18:30ean, Zubietako Herriko Etxean elkartzen dira ohiko biltzarrean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel Jose Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 bilkuretako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartzen dira aktak.

2. URAREN BIDEA.

Idazkariak irakurri du 2018ko martxoaren 2ko kontratazio-mahaiaren akta, zeinean ““URAREN BIDEA”. TXIRRINDULAZ IBILTZEKO BIDEA ZUBIETAKO, ITURENGO, ELGORRIAGAKO ETA DONEZTEBEKO EREMUE TAN” izeneko agirian dauden obren kontratuaren esleipen proposamena egin baitzen. Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 74. artikuak xedatzen duena kontuan hartuz, aho batez erabakitzen da:

1. ““URAREN BIDEA”. TXIRRINDULAZ IBILTZEKO BIDEA ZUBIETAKO, ITURENGO, ELGORRIAGAKO ETA DONEZTEBEKO EREMUE TAN” izeneko agirian dauden lanak esleitzea SASOI ERAIKUNTZAK SL enpresari, B 31 544075 IFK, berrogeita sei mila bederatziehun eta laurogeita bederatzi euro eta hamaika zentimoan (46.989,11 €), gehi BEZa. Lanak 42 eguneko epean bukatu beharko ditu, hasiera-aktako datatik hasita.

2. Kontratua sinatzeko ahalmena ematea alkateari.

3. Martin Mindeguia Ochandorena izendatzea obrako zuzendari teknikoa.

4. Erabaki hau jakinaratzea esleipendunari, eskaintzak aurkeztu zituzten enpresei, obrako zuzendariari eta Doneztebe, Elgorriaga zein Iturengo Udalei.

5. Esleipenaren eraginkortasuna etenda geldituko da 10 egun naturaleko epean (6/2006 Foru Legearen 93. artikulua).

3. MAISTRAREN ETXEKO ERRENTAMENDU KONTRATUAREN LUZAPENA.



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

2015eko urtarrilaren 21ean Udalak egin zuen Osoko Bilkuran erabaki zuen *Maistraren etxeko* errentamendu kontratua esleitzea I.G.E.i, ohiko bizitoki bezala erabiltzeko. Otsailaren 1ean izenpetu zen errentamendu kontratua eta luzatuz joan da 2018ko urtarrilaren 31 arte.

G. jaunak luzapena eskatu zuen baldintza berezi hau onartuta: plaza estaltzearen proiektua aurrera joango balitz, epea bukatu baino lehen bukatuko litzateke errentamendua agian, obra egin ahal izateko; kasu horretan, bi hilabete aurretik jakinarazi beharko lioke Udalak.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da:

1. *Maistraren etxeko* errentamendu kontratua luzatzea urte beteko, aipatutako baldintza bereziarekin. Luzapen honek otsailaren 1etik aurrera izango du indarra; ondorioz, 2019ko urtarrilaren 31n bukatuko da.

2. Erabaki hau jakinaraztea G. jaunari.

4. HERRIKO OSTATUA.

Zubietako Kale Nagusian dagoen Herriko Ostatuan taberna, hostel eta jatetxe zerbitzua errentan emateko baldintzen agiria aztertu da eta aho batez erabakitzen da:

1. Lehiaketa irekirako deia egitea, *Herriko Ostatuan* tarberna, hostel eta jatetxe zerbitzuaren errentamendua esleitzeko.

2. Baldintza plegua onestea. Urteko euro 1ean finkatu da hasierako prezioa, eta errentamenduaren iraupena 2 urtetan, gehiago luzatzeko aukerarekin.

3. Iragarkia argitaratzea Nafarroako Kontratazio Atarian eta Udalaren Web orrian eta Iragarki Oholean. Ttipi-Ttapa eta Xorroxin Irratiaren bitartez ere zabalduko da.

5. ESKABIDEAK.

1. L.S.B.k, auzokide batzuen izenean, idatzia aurkeztu zuen 2 eskaerekin: *Lutzeko* etxe azpitik doan erreka arazoa konpontzea (trabatzeko puntuan omen dago); bertatik Elizara igotzen den bidea konpontzea. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da ondoko hau jakinaraztea:

- udal langileak garbitzen du erreka urtean behin edo bitan. Dena den, erreka garbi mantentzea denon ardura da.

- Elizara igotzeko bidea konpontzea ez da Udalaren lehentasuna, Elizara doan bide printzipala baldintza egokietan baitago.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

2. L.S.B.k idatzia aurkeztu zuen 4 poligonoko 170 eta 180 lursail komunalen erabilpena herriari itzultzen diola adieraziz (Zubietako ohiturari jarraikiz, seroraren familia izateagatik erabili izan ditu). Jakinaren gainean geratzen da Udalbatza.

3. Aho batez erabakitzen da 50 euroko diru-laguntza ematea Herri Urratsi.

4. Aho batez erabakitzen da 50 euroko diru-laguntza ematea Saharaztan Elkarteari *Oporrak Bakean 2018* proiekturako.

5. Aho batez onesten da Zubietako Udalaren adierazpen instituzionala gizarte-hezkuntzaren lanbidea arautzeko lege bat sortzea sostengatzeko.

6. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza:

- 2017/103 zenbakia, 2017ko abenduaren 21ekoa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea A.O.ri eta E.L.i *Makutsoa etxea* eraberritzeko.

- 2017/104 zenbakia, 2017ko abenduaren 27koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea Maderas Santesteban SL-ri estalkiaren teilatua eraikitzeke zerrategiaren ondoan.

- 2017/105 zenbakia, 2017ko abenduaren 27koa, zeinean erabaki baitzen baimena ematea U.G.ri buzoia jartzeko *Sareko* kurban.

- 2017/106 zenbakia, 2017ko abenduaren 28koa, zeinean erabaki baitzen Geserlocal SL enpresari esleitzea zirkulazioko arau hausteekeko espediente zigortzaileak bideratzeko laguntza kontratua.

- 2018/01 zenbakia, 2018ko urtarrilaren 19koa, zeinean erabaki baitzen Iruñako Artzapezpikutzari errekeritzea 4 poligonoko 54 partzelan egiten ari zen obrak gelditzea.

- 2018/02 zenbakia, 2018ko urtarrilaren 31koa, zeinean erabaki baitzen iraungia aitortzea lizentzia hau: 2015eko maiatzaren 13ko Osoko Bilkuran emandakoa M.E.I.ri, 20 metro karratuko egurtegia eraikitzeke 4 poligonoko 564 partzelan.

- 2018/03 zenbakia, 2018ko otsailaren 1ekoa, zeinean erabaki baitzen I.G.ri itzultzea fidantza; *Mendrasa* parajeen oihan aprobetxamendua ateratzeko ordaindu zuen hura.

- 2018/04 zenbakia, 2018ko otsailaren 1ekoa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea P.S.i *Baztanea* etxe ondoko garajeen azulejoak eta harraska aldatzeko.

- 2018/05 zenbakia, 2018ko otsailaren 8koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea I.L.ri 8,14 mero karratuko txabola eraikitzeke 4 poligonoko 564 partzelan.

- 2018/06 zenbakia, 2018ko otsailaren 9koa, zeinean erabaki baitzen basoberritzen mantenimendu lanak adjudikatzea Lasaga Anaiak Repoblaciones SLL enpresari.

- 2018/07 zenbakia, 2018ko otsailaren 19koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea M.S.i zenbait konponketa egiteke 4 poligonoko 743 partzelako bordan.



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

- 2018/08 zenbakia, 2018ko otsailaren 19koa, zeinean erabaki baitzen baimena ematea J.M.E.ri 4 poligonoko 902 eta 906 partzeletako itxiturak berritzeko.

- 2018/09 zenbakia, 2018ko otsailaren 22koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea L.B.ri *Gure Ametsa* etxeko atarian estalkia eraikitzeko, gasolio depositua tapatzeko.

7. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Kantauriko Ur-Konfederazioak emandako Ebazpena, 2017ko abenduaren 13koa, Maderas Santesteban SL-ri baimena eman ziona baso aprobetxamendua ateratzeko; Nafarroako Gobernura bidali diren baso aprobetxamenduko baimen eskaerak —P.J.H., J.L., L.J. eta J.H.rena—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso aprobetxamenduko baimenak —J.B.S. eta J.L.S.i—; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisien emaitzak; Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko zuzendariaren 5E/2018 Ebazpena, zeinean erabaki baitzen iraungia aitortzea *Makutsoko borda* eraberritzeko I.B.ek sustaturiko espedienteak; Barne zuzendari nagusiaren 2/2018 Ebazpena, zeinean erabaki baitzen baimena ematea urtarriaren 30ean (inauteria) errepidea hartzeko; Ingurumen eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari orokorraren 651/2017 Ebazpena, mendiko lanen zati bat egiteko diru-laguntza ukatu zuena.

2. Alkateak hitza hartu eta gai hauek azaldu ditu:

- Belateko tuneletan egin behar diren obrak.
- Ur-zerbitzuan egin beharreko hobekuntzak, hiri-erabilerako uraren ziklo integralaren plan zuzentzailea 2019-2030 betetzeko (sarea hobetu, ur-jarioak aurkitu eta konpondu, sareen mapak egin, etab.).
- Zentraleko bidean kamioi bat sartu zen baimenik gabe eta kalteak eragin zituen. Kalteak ordaintzea eskatuko zaio Iberdrolari eta kamioiko jabeari isuna jartzen saiatu.

3. Aurtengo sutarako egur loteak atera eta banatzeko lanen ardura eman zaio Maderas Santesteban SL-ri aho batez.

8. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 20:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.